

Kostuen egitura

Gure proiektua aurrera eramaterakoan suertatutako gastuak minimizatzea izan da helburu nagusia.

Hala ere, nahitaezko gastu batzuk eman dira:

Finkoak eta zuzenak: webgunea eta aplikazioa sortzeko erabilitako baliabideen araberakoak izango dira, esaterako, informatikako gailuen (mugikorra eta ordenagailua), proiektua gauzatuko den lokalaren prezioa eta iragarkia egunkarian ipintzeak izango duen kostua.

Aldagarriak eta zeharkakoak: lokalean lan egiteko erabilitako elektrizitatea, argindarraren kostuaren menpe egongo da.

